

B

BARREN

TOKIKOM



**Denboralearen
aurpegi ilunena**




elgoibarko
terri eskola

GUSTATZEN JATA, GUSTATZEN JAKU... ETA GUSTATUKO JATZU !!



MATRIKULAZIO EPEA :
OTSAILAREN 2tik 13ra





Miren Vives

Aupa, Esti, hementxe gaude berriz ere, urte berri ez hain berri honetako lehen solasaldian. Urtean zehar bizitzak berriz hasteko aukera asko eskaintzen dizkigu, eta nik behintzat, bi izaten ditut egutegian markatuta: iraileko kurtso hasiera eta urte hasiera. Hala ere, otsailaren lehen aste honetan asko dira jada bidean galdu ditudan asmo onak. Hilabete eskas pasa da, eta “aurten bai! Aurten gogotsu helduko diet!” esan nuen. Baina baita zera ere...

“Quinok zion bezalaxe: Premiazko kontuek denbora kentzen diete garrantzitsuei”

Mafaldaren ahotik Quinok zioen bezalaxe: “Premiazko kontuek denbora kentzen diete garrantzitsuei”. Lanaz gain zeure buruarentzat denbora hartzea, kirola egiteaz disfrutatzea, familiarekin denbora gehiago gauza hobeak egiten pasatzea... Asmo eder horiek egunerokotasunak irentsi ditu, eta horren arriskutsua den “bueno, egun bategatik” errepikatzen diogu geure buruari, patua gure aurka balego bezala. Eta horrela, otsailaren lehen aste honetan, sanblas pila bat jan ondoren kirola ezinbestekoagoa bihurtu da, eta umeekin pasa nahi ditugun orduak arrapataka ihauterietarako moztarokak prestatzen pasako ditugu. Geuretzako denbora berriz, batek daki hori zer den ere.

Sare sozialetan esaldi inspiragarri ugari agertzen dira etengabe: zure etorkizuna zeure esku dago, maitatu egunero egiten duzuna, oztopo bakoitza aukera berri bihurtu ezazu... Bai, oso polita da dena tipografia eta argazki eder batekin, baina batzutan “sar zaitetz nire praktetan” esateko gogoia ematen dit. Baina nire praktetan neu bakarrik kabitzen naiz (horrenbeste opilekin batik batik) eta neuk bakarrik ekin diezaioket nire (eguneroko) bizitza hobetzeari.

Beraz, aurten bai. Aurten ez dut horren erraz etsiko. “Egunero hasten delako” ezta, Esti? Esan baietz, mesedez...



Esti Gonzalez

Bai, Miren, egunero hasten da, eta egunero dugu hasteko aukera. Horrela sentitu zuten baita ere aipatzen duzun Ramon Sainzarbitoriaren eleberriz ospetsuaren protagonista zen Giselek. Aspaldi irakurritako eleberria, gure instituto garaian-edo. Haiek dira oroitza-penak! Urte dexente pasatu dira geroztik, baina arrastoa uzten duten horietakoa izan zen eleberriz hau.

Egia esan, atzera begiratu eta gauza garrantzitsuen oroitza-pena da geratzen dena, eta ez premiazkoena. Premiazkoek hegan egiten dute, iraupen laburra dute gudan, baina garrantzitsuek, aldiz, gure barnean dira, gure bizitzaren osagarriak bailliran. Baina egunerokotasunean, aldiz, alde batera uzten ditugu, eta gehiago kostatzen zaizkigu hauek aurrera eramatea. Niretzat erronka handiena hortxe dago, egunerokotasunean premiazkoak diren gauzak gutxitzen jakitea eta garrantzitsuak direnak gehitzen joatea. Gu ere hasi gera filosofatzen, Gisele filosofia ikasle gaztea bezala.

“Bizitzan zaila egiten zaigu gelditzea eta egiten ari garen horri erreparatzea”

Aurreko esaldi honek ere sare sozialetan azaltzen diren horietako bat dirudi, estilismo hain zaindua erakutsi gabe. Oso polita irakurtzen dugunean, guztiok ados egoten gara esandakoarekin, baina zaila ere bazaigu betetzeko orduan. Guztiok ere ados horrekin. Zergaitik gertatzen zaigu hau?

Nire ustetan, gure bizitzan zaila egiten zaigu gelditzea eta egiten ari garen horri erreparatzea. Bizitza bueltaka doan gurrupila da, eta guk osagaiak gehitu behar dizkiogu aurrera joan dadin. Ziztu bizian doan gurrupila hori gelditu, dastatu, goxatu eta gure ustetan falta zaizkion osagarriak gehitu behar dizkiogu. Gelditzen jakitea zaila bezain garrantzitsua da, gurrupilak noraezean edonora gu eraman aurretik. Horixe da eguneroko erronka. Egunero hasteko aukera ematen diguna.



barren.eus

E-posta berriak ditugu:

BARREN astekaria:
barren@elgoibarkoizarra.eus

BARREN publicitateak:
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN webgunea:
barren.eus@elgoibarkoizarra.eus

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea:
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea
Osoro KOLABORATZAILEA, Jairo Berbel, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larranaga, Esti Gonzalez, Miren
Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi,
Ima Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA
Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE
GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Altzolan irtenbidea

Joan zen ostiralean, urtarrilaren 30ean, Altzolan gertatu zena salatu nahi dugu: azken urteotan ibaiaren maila igo izan denetan ufalak jasan izan ditugu, eta, horrek kalteak eragin dizkigu portaletan, garajeetan... Eta, gainera, isolatuta egon ginen. Gu ez gara jakitunak, baina egoera jasanezin honi irtenbidea bilatu behar zaiola argi dago.

A.E. eta I.R. C

Eskerrik asko

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiet Elgoibarko udaltzainei, brigadako langileei eta Ur Zerbitzuak enpresakoei Altzolan ostiralean izan genituen ufalen ostean emandako laguntzagatik. Eskatu eta ordubetera hemen geneuzkan garbiketalarako behar genituen gauza guztiak. Eskerrik asko.

Saioa Andonegi C

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren finantziazioak aurrez aurre jarri ditu beste behin Elgoibarko EHBildu eta udal gobernua

Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Plana hartu, eta gezurretan aritzea egotzi diote elkarri

Gipuzkoako Batzar Nagusiek 2013an onartu zuten Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Planak –hiru urterakoa– hautsak harrotu ditu beste behin Elgoibarren. Jaurlaritzak 2008ko Gizarte Zerbitzuen Legean zehaztutako eskumen aldaketa bati heltzeko aurkeztu zuen Aldundiak plan hori. Gizarte Zerbitzuen Legean Jaurlaritzak zehaztu zuen adineko udal egoitzak eta eguneko zentroak Aldundiari eskualdatu behar zizkiotela udalek, eta Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantziazioa beren gain hartu, eta eskumen aldaketa hori gauzatzeko, egutegia zehaztu zuen Aldundiak. Garai hartan, Bilduk esan zuen 2008ko Gizarte Zerbitzuen Legea osotasunean garatu ahal izateko ezinbestekoa zela Jaurlaritzak finantza-doiketa bat egitea, baina hori egin bitartean, 2014an Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua %15ean eurek finantzatzeko eskatu zieten udalei, eta hurrengo hiru urteetarako murrizketa progresiboki handitzea jaso zuten. Kontua da Elgoibarko Udalak ez duela onartu plan hori, eta ondorioz, Etkez Etxeko Zerbitzurako ez duela deus jasoko. Horren aurrean, Elgoibarko Bilduk balorazio bat egin du, eta EAJK beste bat.

Iritzi kontrajarriak

Elgoibarko Bilduk prentsaurreko batean agertu zuen bere haserrea, martitzenean. Bilduk ulergaitzat jo du hitzarmenarekin ados ez egoteagatik “Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak” Udalarri dagokion diru bati “uko egitea”. “Egia da Udalak %15eko murrizketa izango lukeela Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantziazioan 2014an eta 2015ean (Udalak 6.700 euro inguru gutxiago jasoko lituzke), baina alkateak hartutako neurriarekin murrizketa %100ekoa izango da, hau da, 42.000 euro kobratzeko aukerarik gabe geratu da”. Horren harira pertsona autonomoek egoitzetan egiten dituzten egonaldien gastuen gaia atera zuen Bilduk. Koalizioaren arabera, Aldundiak bere gain hartu ditu pertsona horiek egoitzetan egiten dituzten ego-



naldien gastuak, eta ondorioz, Udalak 18.000 euro aurreztu ditu 2014an. Bilduk dio onuradunek diru-laguntzen zenbatekoarekin bat ez datozen bakoitzean uko egingo balioke, laguntza gehienak banatu gabe geratuko lirakeela. Hala, salatu dute “alkatearen jokatzeak Elgoibarko herriari kalte-galera konponezina” eragiten diola eta herritarren diruarekin “harrokeriaz” jokatzea leporatu diote alkateari.

Haserre mintzatu da, era berean, Alfredo Etxeberria alkatea Bilduk esandakoen harira. Etxeberriak azaldu du 2013an Batzar Nagusietan Bilduren eta PSE-EEren botoekin onartutako Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Planak argi esaten duela egoitzen zorrari aurre egiteko Aldundiak etkez etxeko zerbitzurako ematen duen diru-laguntzetan murrizketak aplikatuko zituela eta EAJK hasieratik argi adierazi zuela horren kontra zegoela, “onartezina” irizten ziolako eskumen bat finantzatzeko beste eskumen bateko dirua erabiltzea. “Hasieran esan genionari eusten diogu, eta agiri ofizialetan zehazten den horretan oinarritzen gara esaten duguna esateko. Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Planean garbi esaten da 2014an %15 gutxiago emango zigutela, 2015ean %33 gutxiago emango zigutela, eta 2016an are eta gutxiago”.

“Norba it ari bada gai honetan harrokeriaz jokatzen hori Ander Rodriguez Ogasun

diputatua da. ‘Edo sinatzen duzu hitzarmen hau edo ez dizut ezer emango’. Hori dio, konbentzimenduz ez bada, derrigorrean onartu beharko dugula hitzarmena. Eman diezagutela gutxienez dagokigun %85a dena kendu beharrean!. Bestalde, 2015ean murrizketa %15a baino handiagoa izango ez dela ziurtatzen duen agiririk ez duela jaso adierazi du alkateak. “Hori gezurra da. Guri ez zaigu iritsi horren gaineko notifikaziorik. 2013ko plana zorrotz ari dira betetzen. Eta dioten moduan, Foru Aldundiaren asmoa beste bat bada, adierazi dezatela idatziz”. Horren harira esan du badagoela “adierazpen tranpa bat”, zeinaren arabera Foru Aldundiak esaten duen 2014an udalei diru-laguntzetan aplikatuko dien %15eko murrizketa horren ordainetan Aldundiak bere gain hartuko dituela pertsona autonomoek egoitzetan egiten dituzten egonaldien gastuak. “Hori badiote, baina horrek ez dit balio niri, gure egoitzan bi pertsona autonomo baino ez ditugulako gaur. Eta gainera, bestela ere zeinek ziurtatzen dit nik 2015ean ere bere gain hartuko dituela gastu horiek Foru Aldundiak?”. Alfredok dio Foru Aldundiak berak amaituko duela hori, menpekotasunak dituztenentzako egoitzetan ezaugarri horietako pertsonarik egon ezin daitekeela arrazoituz. “Jabetu beharko lirakeke Gipuzkoan eurek daudela agintzen, eta beraz, ardura eurena dela. Ez dezatela bota pilota beste inori”.

Gizonezko baten hilotza agertu zen astelehenean Mendaron Deba ibai bazterreko sastraketan

Lerro hauek idazteko unean identifikatu gabe zuten gorpua artean

Gizonezko baten gorpua agertu zen astelehenean Deba ibaian, Mendaron, Erramone industrigunerako sarrera parean. Inguru horretan txabola duen gizon batek eman zuen abisua 11:45ak aldera. Ibai ertzeko sastraketan hilotz bat zegoela esanez deitu zuen SOS deiak zerbitzura eta berehala iritsi ziren ertzainak eta erreskate taldekoak. Hilotzaren inguruan apenas eman zuten daturik ertzainek. Zehaztu zuten bakarria izan zen desagerketa salaketarik ez zutela esku artean eta pertsona hark ez zeramala ordu asko hilotz. 13:00ak aldera eman zuen epaileak gorpua jasotzeko baimena, eta lerro hauek idazteko orduan, identifikatu gabe zuten artean.



Biktimen sufrimendura hurbiltzeko jardunaldiak antolatu dituzte

Elgoibarko Udalak eta Baketik fundazioak elkarlanean antolatuta bizikidetzari buruzko hiru jardunaldi egingo dituzte otsailen: hitzaldi bat, biktimen testigantzak eta antzerki forum saioa. Lehen saioa otsailaren 11n izango da. Iker Uson Baketik fundazioko kideak *Sufrimenduaren errealitatera hurbilduz* hitzaldia eskainiko du. Inazio Bereziartua Musika Eskolan izango da, 19:00etan hasita. Parte hartu nahi izanez gero, 943 251 005 telefono zenbakira deituta eman daiteke izena, edo helbide honetara idatzita: info@baketik.org.

Bigarren hitzaldian biolentzia ezberdinen biktimen testigantzak izango dira. Hiru biktimak hartuko dute parte: Rosa Roderok, ETAk hildako Joseba Goikoetxea ertzainaren emazteak; Pili Zabalak, GALek 1983an bahitu eta hil zuen Joxi Zabalaren arreba eta Jose Miguel Gomezek, ETAk 1997an hil zuen Martutene espetxeko psikologoa eta ELA sindikatuko kide Francisco Javier Gómez Elosegiren anaiak. Hirurek euren sufrimenduen testigantzak azalduko dituzte. Otsailaren 13an izango da, musika eskolan (19:00).

Azkenik, *Eta hik zer* izeneko antzerki foruma izango da hilaren 25ean, 18:00etan musika eskolan. Hiru galderen inguruan hausnartzeko espazioa da antzerki foruma: zer gertatu da, eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Zer egin dezakegu etorkizunean errepika ez dadin? Antzerki-lan labur bat antzeztuko da aipatutako gaiarekin harremana duten bost istorio laburrekin. Ondoren, ikusleei galde-tuko zaie kontakizunaren zein puntutan gerta litekeen aldaketaren bat amaiera positiboago batera bideratzeko. Ekimen hau Bakearen Itzasargian (Donostia2016) kokatzen da.

PPk babesa agertu dio Diru-sarreraren Berme Errenta alda dezaten eskatzeko Ayudas+justas plataformak hasitako kanpainari

Javi Nuñez PPko Elgoibarko zinegotziak babesa agertu dio Diru-sarreraren Berme Errenta (RGI) aldatzeko eskatzeko sortu den plataformari. Plataforma horrek sinadurak biltzeari ekin dio eta kanpaina horren barruan Elgoibarrera ere etorriko di-rela aurreratu dute, nahiz egunik ez zehaztu. Mahai bat jarriko dute Diru-sarreraren Berme Errenta zer den azaltzeko eta sinadurak biltzeko, eta Javier Nuñez zinegotziak zehaztu du bera ere ondoan izango dutela egun horretan. Dena den, egun hori iritsi aurretik, norbaitek sinadura eman nahiko balu, bi aukera dauzka: Plataformakoekin eurekin harremanetan jarri www.ayudasmasjustas.org webgunean sartuta edo Javi Nuñezi berari deitu eta hark emango dion orria beteta. Berarekin harremanetan jartzeko 617 083 153 telefono zenbakia jarri du herritarren eskura.

Izenak **Zialtzeta eta Gutierrez**



Zapatuan jokatu zuten Elgoibarren Euskal Herriko zazpigarren mus txapelketako kanporaketa, Lanbroa tabernan, eta Jose Maria Zialtzeta eta Quintiliano Gutierrezek jantzi zuten txapela. Guztira, hamaika bikote lehiatu ziren. Jose Maria Zialtzeta eta Quintiliano Gutierrezek Zigor Bengoetxea eta Ibon Villanueva izan zituzten aurkari finalean, eta biak, finalera iritsi ziren bi bikoteak, Gipuzkoako mus txapelketarako sailkatu ziren. Gipuzkoako finala otsailaren 20, 21 eta 22an jokatuko dute, Alegian, eta final nagusia, berriz, martxoaren 7an, Lekeition.

Irudia **Lur-jausia**

Azken egunotako euri-erauntsiak izan du eraginik inguruotan. Mendiak ase-ase daude urez, eta hainbat luizi izan dira bazterretan. Ikusgarriena, beharbada, Idotorberako bi-dean gertatu zen martitzen arratsaldean. Lur-jausiaren ondorioz, errepidea itxi egin behar izan zuten, eta halaxe izan zuten, harik eta garbiketa lanak bukatu arte.



PSE-EE alderdiak herritarren ekarpenak jasoko ditu hauteskunde programa osatzeko


Herritarrekin osatu nahi du PSE-EEK udal hauteskundeetarako herri-programa. Horretarako lau mila eskuorri banatuko ditu Elgoibarko etxeetan, herritarrek bere ideiak eta proposamenak bidaltzeko. Nerea Alustiza alkategai sozialistak herritarren eskura jarri ditu telefonoa, helbide elektronikoa eta baita norberak bete ahal izateko formularioa ere bai. Alustizaren helburua programa "ireki, parte-hartzaile eta benetakoa" osatzea da. Interesatuak 943 742 643 telefonora deitu dezakete, edo elgoibarpse@gmail.com helbidera idatzi.

Aisialdirako tituluak ateratzeko diru-laguntzak

Begirale edo aisialdiko zuzendari tituluak euskaraz ateratzeko diru-laguntzak emango ditu Mendaroko Udalak. Jakinarazi duteenez, matrikularen %60ra arteko laguntzak emango dituzte. Informazio gehiagorako 943 033 282 telefonora deitu daiteke.

Elkartzen elkarteen arabera, 542 etxe huts daude Elgoibarren

Debararreneko Elkartzen elkartek Deba bailarako etxebizitzaren hutsen kopurua eman du jakitera, eta datu horien arabera, 542 etxe daude hutsik Elgoibarren, hau da, etxebizitzaren %10,34. Gaindegiak 2011n argitaratutako datuak erabili ditu Elkartzenek. Elkarteko arduradunen iritziz, etxe hutsen gaineko presio sozial bat egitea premiazkoa da etxebizitzaren eskubidea bermatzeko. Elkartzenek alokabide sozialaren aldeko jarrera erakutsi du. Euskal Herriko etxebizitza hutsei buruzko datuak helbide honetan aurkitu daitezke: www.datuak.net/group/etxebizitza.



JON PELI URIGUEN

BERRIKUNTZA, LANDA GARAPEN ETA
TURISMO SAILEKO DIPUTATUA

**“Gipuzkoa
orekatuagoa
eraikitzeko bultzada
eman dugu
lau urte hauetan”**

Jon Peli Uriguen (Elgoibar, 1968) 2007ko Udal Hauteskundeetan hasi zen politikagintzan. EA alderdiaren alkategaia izan zen orduan, eta alkatetza eskuratu ez bazuen ere, Euskara Saileko zinegotzia izan zen. Lau urte geroago, Bilduk Foru Hauteskundeak irabazi zituenean Martin Garitano Ahaldun Nagusiak bere lantalderako aukeratu zuen Jon Peli. Lau urte egin ditu Diputatu lanean, eta legegintzaldiari buruzko balorazioa egiteko baturu gara berarekin.

Orain dela zortzi urte hasi zinen politikan EAren zerrendaburu izanda, eta duela lau urte diputatu kargura iritsi zinen.

Bai, hala izan zen. EAko zerrendaburu aurkeztu nintzenean Udal Hauteskundeetan euskara alorrean eragiteko asmoz sartu nintzen, bereziki. Elgoibarren euskararen alde lan egitea zen nire asmoa eta horregatik eman nuen politikarako pausoa, baina ez nuen uste hortik politikagintzan jardutera pasatuko nintzenik. Azkenean gauza batek bestea ekarri zuen, eta 2011n Aldundian sartzeko aukera izan nuen. Horrelako aukera bati ezin niola ezetzik esan pentsatu nuen, eta egia esanda, sekula ez naiz damutu hartutako erabakiaz. Bere gauza onak eta txarrak izan ditu, baina oro har, balorazio oso positiboa egiten dut. Esperientzia oso ona izan da, eta arlo asko ezagutu ditut.

Berrikuntza, landa garapena eta turismo diputatu izendatu zintuzten. Zein izan da zure zeregina?

Ni sartu aurretik departamentua beste modu batean zegoen antolatuta. Lehen, bi departamentu eta erdi ziren, nolabait esateko: batetik, Berrikuntza Saila zegoen; Turismo eta Kanpo Harremanak Kirol Sailaren barruan zeuden, eta Landa Garapena beste sail bat zen. Orduan, lantaldea osatu eta Saila bera berregituratu genuen lehendabizi. Aldundia bera ezagutu behar izan genuen lehendabizi, denok ere berriak ginelako. Zer egiten zen, zer egiten jarraitu nahi genuen eta zer aldatu behar zen zehazten eman genuen lehenengo urtea. Ondorengo urteetan proiektuak egokitu eta martxan jartzen aritu gara. Egia esanda oso urte zailak tokatu zaizkigu, aurrekontuaren murrizketen ondorioz. Krisialdiaren erdi-erdian sartu ginen Aldundian, aurrekontuak alde guztietatik murrizten ari ziren urteetan, hain zuzen. Aurrekontu faltagatik proiektu askori ezetz esan behar izan diegu, eta hori izan da lanik zailena edo frustragarriena.

Zertan aldatu da Gipuzkoa Bilduren lau urteko agintaldian?

Alor askotan ekarri ditugu aldaketak, baina bereziki, gauzak egiteko moduan eragin dugu. Diru murrizketak izan ditugu, eta diru gutxiagorekin gauza berberak edo gehiago egin beharra genukan. Nire arloan, adibidez, ekonomia arloko eragileekin harreman zuzenagoa izan dugu, garapen agentziekin harremana ere sendotu dugu, eragileen arteko koordinazio horretatik sinergiak lortu ditugu... Nolabait esateko, Gipuzkoa orekatuagoa eraikitzeke bultzada eman dugu lau urte hauetan. Eragile guztiak martxan jarri eta denen arteko koordinazioa ahalbidetu dugu. Turismoan, adibidez, turismo mahaia sortu genuen eta eskualde guztietako ordezkariak daude hor. Mahai horretan eztabaidatzen dira turismo-ko estrategiak eta oso emaitza onak izan ditugu. Gu Aldundian sartu eta gutxira turismoa jaitsi egin zen Gipuzkoan, eta batzuk berehala hasi ziren errua Bilduri botatzen, gurekin sektorearen gainbehera zetorrela esanez. Gerora gora egin du nabarmen turismoak Gipuzkoan, eta ez dut esango guregatik izan denik baka-riki, baina uste dut turismoa indartzeko lan ona egin dugula denon artean. Datu bat emate aldera, Gipuzkoako Barne Produktu Gordinaren %7,2 da turismoa, eta Bizkaian %5 da.

Lau urtek askorako emango zizuen, baina zer geratu zaizue egiteko?

Egiteko asko geratu zaigu. 2011ko uztailean sartu ginen Aldundian, eta lehenengo urtea etxea ezagutzen pasatu genuen. Ezagutza eta hausnarketarako urtea izan zen. Ondorengo bi urteetan gure proiektuak aurrera eramane ditugu, eta laugarren urtea hauteskunde urtea izaten da beti, eta urte horretan ekimen berriak martxan jartzea zaila izaten da. Egin ditugun gauza asko oraindik jarraitzeko eta indartzeko bidean geratu zaizkigu. Industrian, adibidez, ahalegin handia egin dugu enpresetan langileen parte-hartzea sustatzeko. Europako proiektu bat da eta Europako Administrazioak Gipuzkoako Foru Aldundia aukeratu du lan hori aurrera eramateko, eta orain Adegik edo Jaurilaritzak esaterako ideia hau euren diskurtsoan sartu dute. Hori landu eta indartzen segitu nahiko genuke.

Aldundian aldaketa balego, abian jarritako proiektuetan nabaritu-ko litzateke?

Proiektu gehienak teknikari eta eragileekin batera garatu ditugu, eta proiektu horien beharra sortu da. Oinarri sendoak jarri ditugu,

eta gustatuko litzaiguke gu izatea berriro proiektu horiei segida emango diona, baina datorrena datorrela, proiektuak aurrera jarraitzeko oinarriak jarri ditugu.

Gizartearen zati batek Bilduren legealdia hondakinetara mugatu izana leporatu dizue. Zer esango zenieke?

Komunikabide batzuek hondakinen gaian zentratu dute euren jarduna, eta egia da jende askok uste duela hondakinen gaia izan dela Bilduren gai nagusia, baina komunikabideetan irten ez diren beste mila gauza egin ditugu: turismoaren mahaia dela, langileen parte-hartzea dela... Beste jende bat konturatu da egin dugun lanaz, eta eragile askok onartu dute guk egindako lana. Lehenengo sektorean, esate baterako, eraldatze zentroak jarri ditugu Zaldibin eta Mutrikun, nekazariek euren produktuak transformatu ditzaten. Nekazariek inolako inbertsiorik egin gabe egin ahal izango dituzte zukuak, esnekiak edo behar dutena, baina gauza horiek ez dira komunikabideetan agertu. Hondakinen gaia politizatu egin da, eta alderdi batzuek gai hori erabili dute gobernua eta hainbat udal desgastatzeko. Gai mediatikoa izan da, dudarik gabe.

Azken datuen arabera, langabezia egoerak hobera egin du Gipuzkoan, baina zuen agintaldian enpresa asko itxi dira Gipuzkoan, besteak beste, Corrugados Azpeitian eta Fagor Etxetresnak Arrasaten. Nola kudeatu duzue egoera hori?

Gai honek frustrazio handia eragin digu, eta egoera zailak bizi izan ditugu. Urola eskualdean Corrugados ixteak kalte handia eragin du, gero Muebles Azkueren kasua ere etorri zen, orain badirudi berriz zabalduko dutela, baina egoera zaila izan zen. Eta Deba-
goienan Fagorren itxierarekin beste hainbeste gertatu zen 2013an. Bi eskualde garrantzitsu izan dira kaltetuak, eta txarrena da Aldundiak oso baliabide gutxi dituela horrelako egoerei aurre

“Gauza onak eta txarrak izan ditut, baina oro har, balorazio oso positiboa egiten dut”

egiteko, baina jardun dugu lanean. Fagorren edota TS Fundicio- nes enpresetan, esaterako, langileekin joan gara eskutik, eta au- kera berri batzuk sortu dira. Fagorren kasuan, adibidez, Cata sar- tu da jokoan, eta hasierako *shock* hura apur bat baretu da. Go- gorra izan da, baina datu makroekonomikoak kontuan hartzen baditugu Gipuzkoa da Erkidegoan datu onenak dituen lurraldea: langabezia tasa baxuena dauka eta berrikuntzan gehien inberti- tzen duen lurraldea da. Horrek, dena dela, ez du esan nahi ego- era kezkagarria ez denik. Langabezia-tasa oraindik %14koa da, eta enpresak sortu arren, kasu askotan enplegua ez da kalitatez- koa eta horrekin kezkatuta gaude. Berrikuntzan, nazioartekotze- an, eta langileek enpresan parte-hartzean dago gakoa. Guk ez daukagu lehengairik hemen, baina langile kualifikatuak ditugu, eta atzerrian badugu prestigioa. Kolonbian, Kuban edo Uruguain ibili garenean nabaritu dugu euskaldunok badugula prestigioa eta ho- ri aprobetxatu behar dugu. Hori da dau- kagun onena eta hortik abiatu behar gara egoera honi buelta emateko.

Krisialditik iriteten ari garela ere entzuten hasi gara. Nola ikusten da egoera Aldunditik?

Badirudi gainbehera geratu dela eta egoera egonkortzen hasi dela, baina oraindik zailta- sun egoeran gaude. Uste dut batzuetan me- zu positiboegiak ematen direla, eta kontuan izan behar dugu familia askotan kide guztiak langabezia daukela, beraz, kontuz ibili be- har da horrelako mezuekin. Egoerak hobera egin duela uste dut. Inbertitzeko tendentzia berreskuratzen ari gara, banketxeak ere hasi direlako kredituak ematen, eta ni baikorra naiz. Momentu gogor hauetan ere jendeak baditu proiektuak eta uste dut poliki-poliki irtengo garela. Ez gara se- kula lehengora itzuliko, eta ez da komeni ere. Gure aukeren gaintetik bi- zitzen egon gara, eta hori ez da ona.

Landa garapena sustatzeko egindako lanak aipatu dituzu lehen, baina hain zuzen ere, nekazariak sarri kritikatu dute zure lana, eta Julian Un- nue Mendiko eta Natura Inguruneke zuzendaria kargugabetzeak zala- parta handia sortu zuen.

Lehen sektorea erronka zailen aurrean dago, eta betiko ereduak huts egin dute leku askotan. Gu sektoreko eragileen eskutik joan gara une- oro eta hasieratik argi utzi ditugu gure helburuak. Basogintza mahaia sortu genuen eta hor eragile guztiak zeuden: ekologistak, baso-jabeak, unibertsitateak, enpresak... Tirabirak izan dira, baina adostasunak bila- tu ditugu eta zenbait puntutan lortu dugu. Alde guztien interesak uztar- tzeke ahalegina egin dugu. Une batean erabaki jakin batzuk hartu be- har ziren, enpresa guztietan bezala, eta, Julianek egindako lana esker- tzeke eta oso baliagarria izan bazen ere, erabaki genuen zuzendari- tzan aldaketa bat behar zela. Orduan hasi ziren esaten sektorea kon- tra jarri zitzaigula, baina sektorearen parte bat izan zen, basoaren us- tiapenarekin zerikusia zeukana, hain zuzen. Gezur asko esan dira. Az- kena, adibidez, ENBAK esaten du guk diru gutxiago eskaini diogula le- hen sektoreari, baina erakutsi diogu hori ez dela egia. 2008, 2009 eta 2010 urteak eta 2012, 2013 eta 2014 urteak alderatuta, guk sei milioi gutxiago kudeatu ditugu, eta hala ere, nekazarietako diru-laguntza

zuzenak 1.800.000 euro gehiago izan dira. Mezu horiek gure irudia dis- torsionatzen dute. Egia da lehen sektoreak zailtasunak dituela, baina lanean ari gara, eta lehen aipatutako eraldatze zentro horiek uste dut lagunduko dutela nekazari gazteen kopurua handitzen. Sektore gogo- rra da, baina interesgarria, eta jendea animatzen ari da sektorean sar- tzen.

PSE-EEK zure dimisioa eskatu zuen Gipuzkoako foru aurrekontuan adostutako krisiaren aurkako plana martxan ez jartzeagatik. Nola bizi izan zenuen?

Une berezia izan zen, oinarririk gabeko eskaera bat zelako. Konpromi- soak ez genituela bete esaten zuten, baina guk 100%ean bete geni- tuen. Epe batzuk luzatu egin ziren, baina Gipuzkoako ordezkariekin hitz egin nuen, eta ulertu zuten egoera. Handik bi egunera iritsi zen zentsura mozioa, eta ez nuen ulertzen, baina plenoaren egunean ber- tan behera utzi zuten, arrazoirik gabeko mozioa zelako. Egoera desa-

tsegina izan zen, baina lasai nengoen ikusten ge- nuelako mozio hark ez zeukala aurrerabiderik.

Gauza onak eta txarrak bizi izan dituzu, baina oro har, nolako balorazioa egiten duzu diputatu lanetan jardun duzun urteez?

Oso ona. Bildu Aldundian sartu zenean mezu ka- tastrofikoak zabaldu zituzten, eta bazirudien Gipuz- koa gelditu egingo zela; lau urte galduko zituela, eta azkenean lau urte hauetan erakutsi dugu egin dai- tekeela beste Gipuzkoa bat. Zintotasunez jokatu eta kudeaketa egoki batekin pauso garrantzitsuak eman ditugu. Aldundiaren aurrekontuak egonkor- tzea eta zorpetze maila txikitzea lortu dugu, lehen- diik zeuden proiektuei segida eman diegu eta be- rriak jarri ditugu martxan, eta oro har, diru gutxiago- rekin gehiago egin dugu. 2008an Aldundiaren au- rrekontu erabilgarria 1.100 milioi ingurukoa zen, eta 2012an 680 milioi euro genituen. %40 inguru jaitsi zen aurrekontua, eta hala ere, lan as- ko egin ditugu. Eragileek ulertu dute murrizketak ez ditugula boronda- tez egin, eta alde horretatik ere, esperientzia aberasgarria izan da.

Nola ikusten dituzu datozen Foru Hauteskundeak? Podemos alderdia jokoan sartuko balitz, nola eragingo luke?

Gizartea nazkatuta dago, Espainian bereziki. Politikarienganako sines- garratasuna asko jaitsi da, eta aldaketaren bat etorriko da. Grezian ere ikusi da herritarren haserre, batez ere, Europatik murrizketak bakarrik datozelako. Dirudunek gero eta diru gehiago dute, eta desberdintasun sozialak gero eta handiagoak dira. Hori moztu egin behar da, eta us- te dut guk arlo horretan aurrerapauso handiak eman ditugula. Hautes- kunde hauetan Podemosek indarra hartuko duela uste dut, baina Euskal Herrian ez dut uste horrenbesterakoa izango denik. Dena de- la, hauteskunde interesgarriak izango dira, parte-hartzea igotzen ba- da, behintzat.

Maila pertsonalean, zein dira aurrera begirako zure asmoak?

Beti esan dut enpresa pribatura itzuliko naizela, baina ez dakit noiz. Politikan oso gustura nago, eta egia esan, lau urte motz geratzen di- ra politikan. Ni jarraitzeko prest nago, baina horretarako baldintza as- ko bete behar dira.

“Lau urte hauetan erakutsi dugu egin daitekeela beste Gipuzkoa bat”

Bosko Eguna ospatu zuten joan zen barixakuan

Elgoibar Arreiturre BHI, Meka GLHBiko eta IMHko ikasleek Bosko Eguna ospatu zuten joan zen barixakuan, eta horretarako hainbat ekintza antolatu zituzten ikastetxeetan. IMHn eta Mekan minutu bateko isilunea egin zuten jaiasi aurretik, astebete aurretik istripuan hil ziren bi ikasleen oroimenez. Une gazi horren ostean, jai giroan murgildu ziren ikasleak, eta eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, umore onean pasatu zuten eguna.



IMH



Institutua




IMH



Institutua



IMH



Institutua



IMH

Maila gorria gainditu zuen Deba ibaiak joan zen barixakuan eta kalteak ere eragin zituen, bereziki Altzolan eta Mendaron

Deba ibaiari begira eman genuen eguna joan zen ostiralean. Ordu gutxiren buruan asko hazi zen Deba ibaia-
ren emaria, eta maila gorria ere gainditu zuen unerren batean. Goizean goiz, ibaia oso hazita zetorrela ikusita
eta euri-erauntsiak atertzeko itxurarik ez zuela ikusita, bandoa zabaldu zuten Elgoibarko eta Mendaroko udalek,
etor zitekeenaz ohartarazteko, baina hala ere, Deba ibaiak gainezka egin zuen Andikano inguruan eta Altzolan, eta Men-
daron, hain zihoan hazita Deba, ibaiak ezin izan zuela Kilimon erreka-aren emaria hartu, eta, ondorioz, ufalak izan zituz-
ten Garagartza auzoan. Hiru urtean hirugarren aldiz hartu du urak auzoa. Argazkiak eta bideoa: www.barren.eus



Elgoibar



Elgoibar



Elgoibar



Elgoibar



Altzola. Arg.: Altzolako Urak



Mendaro



Mendaro



Mendaro



Mendaro



Mendaro



Altzola. Arg.: Altzolako Urak



Altzola. Arg.: Altzolako Urak



Altzola. Arg.: Altzolako Urak

Deba ibaiak enegarrenez gainezka egin ondorenean, ufalak saihesteko neurriak hartzeko eskatu zuen Altzolako bizilagun talde batek barixakuan. Altzolan irtenbidea lelopean elkarretaratzea egin zuten, Deba ibaiak gainezka egin zuen lekutik gertu. Bainuetxeko Zumardian, Altzolako Urak dagoen pare horretan, egin zuen gainezka Deba ibaiak, eta ibaiari begirik kendu gabe pasatu zuten egun osoa bizilagunek.

GOTZON BARANDIARAN

IDAZLEA ETA KULTURGILEA



Gotzon Barandiaran idazle eta kulturgileak (Larrabetzu, 1974) irabazi du Gotzon Garate beka. Elgoibarko euskarazko ondarea gizarteratzeko egitasmoak edota euskarriak proposatzea izanda aurrean Gotzon Garate bekarako ikerketa-esparrua, eta lau izan dira aurkeztu dituzten lanak. Euskal Filologian lizentziatua da Barandiaran, Gotzon Garate zenaren ikasle izandakoa, eta eskarmentu handia du euskararen eta euskal kulturaren ondarea berreskuratzen, digitalizatzen eta hedatzen. Horrezaz gain, ezaguna da kulturgintzan eta herrigintzan egindako lanengatik ere. Liburuak idatziak ditu, poesia eta musika batzen dituen Bihotz Bakartien Kluba taldeko eta Katamalo musika taldeko partaide izan da, Durangoko Liburu eta Disko Azokako Ahotsenea gunearen arduraduna ere izan zen (2001-2003), eta gaur egun, Armiarma literatur atarirako dihardu, besteak beste.

“Elgoibarko euskarari buruzko lan guztia atari gaurkotu batean jarriko dugu denen eskura”

Zertan datza aurkeztu duzuen proiektua?

Deialdian aipatzen zuten euskarri eman gura ziela Udalak garrantzia, Elgoibarko euskarazko ondarea gizarteratzeko, sozializatze, komunikatzeko eta dagoen eduki hori guztia ahalik eta gehien zabaltzeko. Hala, bururatu zitzaigun orain arte Elgoibarko euskarari buruz jasotako guztia, ondare etnolinguistikoa hori guztia, erakusteko modurik eraginkorrena zera litzatekeela: egin den guztia atari bakar baten erakustea.

Guk proposatu genuen urteetan batzuek eta bestetuek bildutako material guztia diseinu funtzional eta grafiko berdinerantz ekartzea eta erabiltzaileari aukera ematea Elgoibarko euskarari buruzko zeozer jakin gura izanez gero atari horretara joateko. Erreferente bihurtu nahi dugu atari hori, elgoibartar guztiek, eskaltzaleek, ikertzaileek eta baita zuek ere, kazetariok, material guztia atari bakar batean eskura izan dezazuen, nabigatzailean gora eta behera bila ibili beharrean lau-bost leku diferentetan dagoena ikusteko. Era berean, bidea emango dugu etorkizunean Elgoibarko ondare etnolinguistikoa inguruan sortuko diren ikerketak eta abarrak ere hor integrazteko. Horrek ematen du sekulako aukera nork bere lanketa propioa egiteko; hau da, hor dagoen edukia oso-oso erabilgarria da, adibidez, ikastetxeetarako, lekuan lekuko curriculumerako, zuek kazetarien jardunetarako..., azken batean, Elgoibarko historia ere batzen delako hor.

“Ahalik eta bilaketa sistema errazena sortu nahi dugu, edukien barruan nabigatzeko”

Ataria hitza aipatzen duzu behin eta berriz. Zer berezitasun ditu atari batek? Zer aurkituko dugu 'elgoibarreraz.eus' atarian sartzen denak?

Ataria esaten zaio barruan webgune bat baino gehiago dituen webguneari. Elgoibarren badago kronika zaharren webgune bat eta

badaude Elgoibarko bizitzari buruzko grabazio batzuk ere beste gune batean. Hori sekulako altxorra da, baina jakina, material hori egon da oso formatu diferentetan, programazio oso diferentetan, orrialde ezberdinetan, estilo diferentegaz sortuta, bilaketak egiteko modu barik... material jakin bat bakar-bakarrik liburuetan izan dugu eskura, edo PDF formatoan bestela, eta hori dena batu eta Internetez ia ezer ez dakienak kontsultatzeko moduan jarriko dugu sarean. Nabigatzailean Elgoibarreraz.eus idatzi eta hor agertuko da dena. Ahalik eta bilaketa sistema errazena sortu nahi dugu, hipertestua baliatuta (Interneteko kontzeptua) edukien barruan nabigatu ahal izateko.

Elgoibarko euskarari buruzko materiala jaso nahi duzue, baina Ahotsak proiektuak Elgoibarrerako sortutakoa baino zabalagoa da eskuartean duzuen, ezta?

Hori baino gehiago da, bai. Gurean sartzen dira, esaterako, XX.mendeko gerra aurreko egunkarietan agertutako Elgoibarko kronika zahar digitalizatuak, Jesus Mari Makazagak egindako Elgoibarko berbetari buruzko unibertsitate mailako ikerketa, Ahotsak-ek urte hauetan egindako elkarrizketa aberats horiek... Gure atariak lau azpi-atal izango ditu eta erraz asko egin ahal izango da batetik bestera.

Elgoibarren aurkeztu duzuen honen antzekorik ba al da inguruotan?

Gaur egun, ez. Ni banabil urteetan halako lanak egiten, eta esan dezaket ez dagoela ezaugarri hauetako ataririk. Batzuk badabiz astiro-astiro gauzatxoak egiten, baina hone-lakorik ez dago. Normala ere bada, baina, hori. Teknologia egun batetik besterako aurkikuntza izan da zelanbait esateko, eta ondortxo dakigu hemen gaur berria dena bihar zaharra izango dela. Udal asko horrela ibili dira lanean, epe luzearako perspektiba eta estrategiarik gabe urtean-urtean gauza berriak egiten, eta hori igarri egiten da. Elgoibarren ere antzeko zerbait gertatu da. Herriari buruzko hainbat ikerketa ditu plazaratuta Elgoibarrek Interneten, baina webgune, domeinu eta leku ezberdinetan. Nik uste dut hau izango dela Euskal Herri mailako lehenengo ataria. Guk esaterako, *Armiarma.com* proiektuan lan egiten dugu. Bere barruan euskarazko literaturari eskainitakoa beste hamaika webgune dauzkan ataria da Armiarma; informazio guzti horren biltegia da, beraz, Armiar-

ma. Eta asmoa eta kontzeptua horixe da: bateratzen joatea orain arte egindako lana, ekartzea diseinu eder batera, ekartzea funtzionalitate gaurkotu batera eta ahalik eta erabiltzaile gehienek eskura jartzea.

“Interneten jende asko dabil, baina beren-beregi gure kultura sareratzeko ahaleginetan ez”

Aurkezpenean fetxak zehaztera ere ausartu zinen. Ekainerako prest egongo dela iragarri zenuen. Egitekoez ari direla nekez hitz egiten du jendeak horren seguru daten inguruan.

Hori ere hala da, bai, baina kontua da gu ez garela zerotik hasten. Ekainerako amaitzea da gure asmoa, osterantzean halako beharrik eternizatu egiten direlako eta badakigulako gero zer pasatzen den. Ahalik eta arinen gura dugu amaitutzat ematea.

Hasita zeundeten lanean, eta beraz, bekarako aurkeztu zinetenean ere izango zenuen irabazteko esperantzarik, ala?

Ez da espero genuela, baina harritu ere ez gara egin, mota honetako lan dezente dauzkagulako eginda aurrez. Interneten jende asko dabil, baina euskara eta euskarazko kultura Interneten jartzen ez dabil horrenbeste jende ere; ez behintzat beren-beregi gure kultura eta gure hizkuntza sarean jartzeko ahaleginetan. Guretzako garbi dago beka hau bultzada handia dela, baina ez guretzat bakarrik, hau ona izango baita beste Udal batzuek Elgoibarkoaren adibidea hartu dezaten. Hala gura neuke behintzat. Daukagun ondare guzti hori jasotzea, eta batez ere Ahotsak-ek egiten diharduen hori -badoan belaunaldi horren ahozko testigantzak jasotzea- sano-sano da garrantzitsua. Beraz, ezaugarri hauetako lanak beste udal batzuentzat eredugarri badira, denontzat hobe.

Kaleraino egin du elurra

Argarrita zegoen moduan, behe-beheraino egin zuen elurra Santa Ageda bezpera egunean. Aurreko egunetako euri-denboraleen ostean, mendebaldetik sartu zen eguaztenean elur denboralea Euskal Herrira, eta eguna argitzearekin batera, mara-mara hasi zuen elurra Elgoibarko eta Mendaroko kaleetan. Kaleak eta errepideak zuritu zituen, baina, zorionez, ez zen aparteko arazorik sortu herrigunean. Argazki gehiago: www.barren.eus webgunean.



Bihar irtengo dira eskean Etxegiña taldekoak eta Mendaroko santa-eske taldeetakoak

Elurraren eraginez, Elgoibarko Izarrak bertan behera laga zuen baserrietako santa eskea

Eguenean, otsailaren 5ean, izan zen Santa Ageda Eguna, eta haren omenez irtengo dira bihar kantuan eta eskean, Elgoibarren zein Mendaron.

Etxegiña taldekoak arituko dira Elgoibarko kale eta auzoak kantuz janzen. 9:00etan elkartuko dira parrokia atzeko bolatoki zaharrean, eta bi taldetan banatuta jardungo dute kantuan eta eskean. Kalejiraren azken txanpa batera egingo dute, eta Errosario kaleko ama birjinari salbea abestu ostean, Baltasar elkartean bazkalduko dute. Azken urteotan bezala, batzen duten dirua Caritasentzat izango da.

Mendaron kaleetan ez ezik, baserrietan ere jardungo dute koplakantari. Herriko Enparatzen batuko dira 8:30ean, eta hiru taldetan banatuta egingo dute santa-eskea. Aurten batzen duten dirua Arno Guraso Elkarteari emango diote.



Elgoibar Ikastola

Elgoibarko Izarrako santa eskea bertan behera

Eguraldiak hala behartuta, Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldeak kantuan eta eskean ez irtetea erabaki zuen eguaztenean. Elurra mara-mara ari zuen eguerdi aldean, eta baserri-bideak elurtuta eta izoztuta zeudela ikusita, arriskurik ez hartzea erabaki zuten. 1994an berreskuratu zuen Elgoibarko Izarrak Santa Ageda bezperan baseriz baserri kantuan eta eskean irteteko ohitura, eta ordutik usadio zaharrari huts egin dioten lehen urtea izan da aurtengoa. Elkarteko arduradunek jakinarazi zutenez, pena handiz hartutako erabakia izan zen. Elgoibar Ikastolako ikasleek ere Santa Ageda bezperan egiten dute kalejira, baina haiek ere ikastetxean bertan ospatu zuten jaia. Herri Eskolan eta Mendaroko ikastolan ere eraikin barruan jardun zuten koplakantari.



Herri Eskola

ESKERTZA

HERMENEGILDA ZUBIAURRE SAN MARTIN

*Gureganako beti izan dozu
irribarra aurpegian,
irudi hori gordeko dogu
beti gure barrenian.*

Zure familia



2015eko urtarrilaren 31n hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Euskal Liga jokatzeko sailkatu da Bankoa Elgoibar, igoera faseko partida guztiak irabazita

Euskadiko zortzi talde onenek jokatzen dute Euskal Ligan

Erakustaldia emanez lortu du Bankoa Elgoibar kadete mailako eskubalo taldeak Euskal Ligarako sailkatzea. Joan zen asteburuan Elgoibarren jokatu zuten igoera fasean partida guztiak irabazi zituzten, markagailuan alde handiarekin gainera. Lau talde aritu ziren lehian: Bankoa Elgoibar, Bidasoa, Urdaibai eta Saieko.

Sanloko kadete mutilen taldeak Donostiako Saieko taldearen aurka jokatu zuen igoera faseko estreinako partida, barixakuan. Zaleen aurrean jokatzeak ez zituen urduri jarri elgoibartarrak eta etxeko taldeak bikoiztu egin zuen markagailuan Donostiakoa: 38-18 amaitu zen partida. Lehen jardunaldiko bigarren norgehiagokan, Bidasoak 35-26 irabazi zion Urdaibairi. Zapatuan Urdai-bairen aurka jokatu zuen Bankoak, eta gol zaparrada jaso zuten bizkaitarrek. 37 gol sartu zizkion Bankoak Urdaibairi, eta 20 besterik ez zituzten jaso. Bi-



dasoak ere nagusitasunez irabazi zion bere partida Saiekori, 30-41eko emaitzarekin. Hortaz, azken jardunaldia jokatzeko faltan, Euskal Ligarako sailkatzea lortu zuten matematikoki Bankoa Elgoibarrek eta Bidasoak, igoera faseko bi talde onenentzako baitzegoen le-

kua Euskal Ligan. Euskadiko zortzi talde onenek jokatzen dute Euskal Ligan.

109 gol sartu zituen Bankoa Elgoibarrak asteburuan jokatutako hiru partidetan, batez beste, partidako 36 goletik gora. Eta aldiz, 66 gol jaso dituzte, 22 partidako.

Sailkapeneko goiko postuetan sartzeko lehian ari da Concepto Egile areto futbol taldea



Ligako azken hiru partidak irabazi ditu Concepto Egile areto futbol taldeak, eta garaipen horiei esker, sailkapen nagusiko bosgarren postuan dago Elgoibarko taldea. Hamazazpi jardunaldiren ostean, 36 puntu ditu Concepto Egilek. Joan zen asteburuan Colo Colo sailkapeneko bigarren sailkatuaren kontra jokatu zuten elgoibartarrak, eta orain bi puntura jarri dira sailkapenean. Elgoibartarrak sailkapeneko aurreneko postuetan sartzeko lehian ari dira. Asteburu honetan Zaragozako Sala Quinto taldearen kontra jokatuko dute.

Lagunak Pilota Eskolak erreleboa behar du

Lagunak Pilota Eskolako zuzendaritzak Elgoibarko pilotazaleei dei egin die, zuzendaritzan erreleboa behar dutelako. Urte asko eman dituzte eskola zuzentzen eta gazte-txoen artean pilotarako zaletasuna sustatzen, baina eginahalak eginda ere, orain motz geratzen direla adierazi dute. Adinean aurrera doaz, eta gazteek lekukoa hartu eta eskola indarberritzea nahi dute. Ekain inguruan amaituko da aurtengo ikasturtea, eta egungo zuzendaritzak ordura arte jarraituko du lanean, baina handik aurrera euren jardunari utzi egingo diote. Erreleboa hartzeko interesatuak Ikastolako frontoira agertu daitezke asteartetik ostegunera, 18:00etatik 19:00etara.

Bigarren egin du Arkaitz Egañak Espainiako Ehiza Xeha Txapelketan

Aurrez ehiza-barrutia ikuskatu gabe lehiatu zen



Arkaitz Egaña, ume jaioberria besoetan hartuta.

La Union elkarteko Arkaitz Egaña ehiztaria eta Sol txakurra bigarren sailkatu ziren zapatuan Espainiako Ehiza Xeha Txapelketan. Fuensalida (Toledo, Espainia) herriko El Castillejo ehiza barrutian jokatu zuten txapelketa, atzerapenez. Izan ere, birritan atzeratu dute 2014ko txapelketari dagokion azken saio hau, eta Yebenosen beharrea Fuensalidan jokatu dute gainera azkenean. Berrikuntza bat ere izan du txapelketa honek, Espainiako Ehiza Federazioaren erabakiz, ehiztariak ez dutelako aukerarik izan aurrez ehiza-barrutia bisitatu eta ikuskatzeko. Hala, erreferentziarik gabe, lehiatu behar izan ziren.

Fernando del Campo Sierra madrildarrak irabazi zuen txapelketa gizonetzkoetan eta Extremadurako Ana Maria Verdascok emakumezkoetan. Ehiztari madrildarrak sei eper, bi erbi eta sei untxi ehizatu zituen Roa txakurraren laguntzarekin. 6.670 puntu eskuratu zituen. Arkaitz Egaña elgoibartarra eta Sol txakurra sailkatu ziren bigarren postuan. Sei eper, bi erbi eta hiru untxi ehizatu zituzten Euskadiko egungo txapelkunak diren Egañak eta Solek. Guztira 5.345 puntu lortu zituzten.

Bukaeran, Egañak esan zuen ehiza "gehiegi" zegoela barrutian eta aitortu zuen bai berak eta baita beste ehiztariak ere "errazegi" aritu zirela. "Ehiztari eta kirolari gehienok, baina, aukeran nahiago dugu ehiza basatiagoa, ehizatzea kosta egiten dena. Horrela hobeto neurtu daitekeela ehiztariaren abilitadea eta meritua", nabarmendu zuen.

Mendi-eski irteera antolatu du Morkaikok Aste Santuko oporraldirako

Morkaikok Canfranc ingururako mendi-eski irteera antolatu du Aste Santurako. Eskiekin edo raketekin egiteko ibilbideak prestatu dituzte, Astun, Candanchu eta Collarada inguruetan. Canfranc Estacion herriko Rio Aragon aterpetxean hartu dute ostatu, pentsio erdian. Bazkideek 100 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 115 euro. Interesatuak martxoaren 16rako eman beharko dute izena.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ostadar 1 – Haundi 6 (Pref.)
Roteta 0 – Elgoibar 1 (Erreg.)
Lagun Onak 3 – Elgoibar 2 (Kad. A)
Soraluze 1 – Elgoibar 2 (Kad. B)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa (Pala)
Lagunak 25 – Alde Zaharra 17 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 5 – Colo Colo 3 (2B)

ESKUBALOAIA

Lauko Elg. 30 – Beti Onak 16 (Sen. nes.)
Alkorta Elg. 26 – Trapagaran 25 (Sen. mut.)
Eibar Haritza 21 – Gabaz Elg. 12 (Sen. mut.)
Igoera fasea (Kad.)
Bidasoa 35 – Urdaibai 26
Bankoa Elg. 36 – Saieko 18
Saieko 30 – Bidasoa 41
Bankoa Elg. 37 – Urdaibai 20
Urdaibai 40 – Saieko 38
Bidasoa 28 – Bankoa Elg. 36

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapata, 8
10:30 Elgoibar – San Ignacio (Neskek f-8)
12:30 Elgoibar – S. Tomas Lizoea (Jub.)
16:30 Haundi – Touring (Pref.)
Domekia, 9
16:30 Elgoibar – Añorga (Kad.)

PILOTA

Barxakua, 6
20:30 Lagunak – Zumaia (2. mailako jub.)
Pala
21:00 Lagunak – Loiolatarra (2. mailako jub.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapata, 7
11:15 Murgil Elg. – Pulpo (Inf. mut.)
12:30 Astigarraga Elg. – Leizaran (Jub. nes.)
17:45 Tecnifuelle Elg. – Usurbil (Kad.nesk.)
Domekia, 8
9:30 Sukia Elg. – Pulpo (Aleb. nes.)
10:30 San Roke Elg. – Eibar (Inf. nes.)
12:00 Gabaz Elg. – Urnieta (Sen. mut.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da gauzez adinekoak zaintzeko. Etxean zein ospitalean. ☎ 630 410 294
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 677 259 560
- Emakumea eskaintzen da adinekoa zaintzeko, garbiketa lanetarako edo sukaldako lanetarako. ☎ 606 354 982
- Gizona eskaintzen da lanerako. Edozein lan egingo nituzke. sukaldako lanetan eskarmentua daukat. ☎ 631 974 442
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ 603 743 240
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia sukalde languntzaile lanetan eta nagusiak zaintzen. ☎ 688 682 398
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Umeak eta adinekoak zainduko nituzke. ☎ 634 640 588
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Umeak zein gurasoak zaintzeko, baita interna moduan ere. ☎ 696 862 544
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko. ☎ 619 041 821 / 943 744 033

- Emakumea eskaintzen da lanerako. Baserrian nahiz kalean egingo luke lan adinekoak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. Autoa du. ☎ 620 172 543
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia nagusiak zaintzen. ☎ 608 356 453
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ 654 304 337
- Emakumea eskaintzen da lanerako, orduka. Etxeak garbitzeko edo erropa plantxatzeko prest. ☎ 631 203 287
- Emakumea etxeak, portalak... garbitzeko prest. Esperientzia eta gomendioekin. ☎ 648 039 187
- Emakumea asteburuetan adinekoak zaintzeko prest, esperientzia eta gomendioekin. ☎ 608 820 954
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. ☎ 639 423 493 / 943 741 185
- Emakume arduratsua eskaintzen da lanerako. Garbiketa lanetan edo adinekoak zaintzen egingo luke lan, interna ere bai. ☎ 631 705 406
- Emakume arduratsua eskaintzen da lanerako. Garbiketa lanetan edo adinekoak zaintzen egingo luke lan, orduka. ☎ 632 454 417
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ 638 338 816
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo mugikortasun arazoak dituzten pertsonak zaintzeko.

- Ospitalean zein etxean. Ezinduak mugitzeko garabiak erabiltzen daki. Gauzez ere bai. ☎ 600 005 160
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 631 534 125
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ 602 846 244
- Alemanerazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. ikasle truke eta azterketen prestaketa EOI. ☎ 670 793 312
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Garbiketa lanak, adinekoak edo umeak zaindu, zerbitzari lanak... ☎ 602 377 184
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Garbiketa lanak, adinekoak edo umeak zaindu, zerbitzari lanak... ☎ 632 767 696
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Orduka edo interna. ☎ 602 052 260
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Paperak legez ditut. ☎ 687 362 773
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ 943 748 899 / 685 724 861

ETXEBIZITZAK

- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren ☎ 677 259 560

- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 606 354 982
- Pisu edo baserri hutsa hartuko genuke mantentzearen, beritzearen eta gastu batzuk ordaintzearen truke. ☎ 678 155 803
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 602 378 498
- Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 639 423 493 / 943 741 185
- Etxebizitza txiki bat hartuko nuke alokairuan. Hilean 300 bat euro ordainduko nituzke. ☎ 631 275 541

BESTELAKOAK

- Eibarren kafetegia traspasatzen da, zentruan. ☎ 659 377 095
- Mendiko bizikleta (BTT) automatikoa salgai. 800 euro inguruan salduko nuke. ☎ 628 526 586

OSPAKIZUNAK

- Txikittan bote-boten jolasten zendun eta oroitzapen hoiek gogoratzea nahi dozu? Ubitarten jaixo, hazi, bizi zera edo jolastu dozu? Animatu bazkaltzera. Bazkarixa otsailaren 28xan izango da Txariduna jatetxian, eta juan nahi dabanak 35 euro ingresatu behar dittu kontu korronte honetan: 3035 0007 20 0073294. Harremanetarako. *boteboteubitar-te@gmail.com*



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Garaje-plaza bat erosi berri dut, eta konturatu naiz nire ondoko batek beste marra bat egin duela bere plaza bukatzen den lekuan. Jakin nahiko nuke horrek nola eragiten digun gainerakoii?

Batzuetan, garaje-plaza bateko marrek markatzen duten azalera ez da bat etortzen kontratuan edoeta salerosketa eskrituran jasotako azalarekin. Beste batzuetan gertatzen da ere etxebizitzaren nahiz elementu komunaren ezaugarriak ez etortzea bat eraikitze proiektuko planoetan zehaztutako ezaugarriekin edo beste erabilera bat ematea.

Etxebizitza berrien kasuan, orokorrean, enpresa etxegileak kontratatutako baldintzen lege hauste baten aurrean geundeke, eta beraz, etxe-jabe kaltetuak erantzukizunak exijitu ahalko lizkioke.

Baina errealitatea ez badator bat kontratuan jasotakoarekin edo Komunitatea Eratzeko Tratatuan jasotakoarekin, komunitate osoari eragiten dion arazo baten aurrean geundeke eta ondo aztertu beharko genuke horren eragina.

AHOLKUA: Kasu bakoitza banan-banan aztertu behar da ikusteko zer eragin daukan eta alde guztien erantzukizunak zeintzuk diren jakiteko. Kasu honetan ematen du garajeak eraiki zituenak eta jabe horrek adostu zituzten baldintzak hautsi direla, eta beraz, komunitateak ez luke inolako erantzukizunik izango gai horretan.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Bryan**, atzo 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat lagunen eta etxekoen partez, eta bereziki anaia Adrianen partez. Ondo-ondo ospatu!



• Zorionak, **txapeldun**, urtarrilaren 30ean 9 urte egin zenituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Aimar Blanco Garbexgi**, gure pototo, bihar urte bat egingo duzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Ane**, bihar 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, etxeko denon partez.



• Zorionak, **Jokin**, bihar 6 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasa eta muxu bat etxekoen partez eta bereziki arreba Maddiren partez.



• Zorionak, **Nora Sota**, gaur 12 urte beteko dituzulako. Etxekoen partez, eta bereziki guraso eta ahizpa Aneren partez. Egun zoriontsua izan!



• Urtarrilaren 26an jaio zinen, **Xuhar**. Ongietorri gure artera! Aiton-amonen eta osaba Imanolen partez.



• Igandean 3 urte, **Jare**. Zorionak etxeko guztien partez, eta bereziki zure neba Aratz eta lehengusu Ibairen partez.



• Zorionak, **Arai**, otsailaren 10ean 3 urte beteko dituzulako. Patxo bat, familiakoen partez.



• Nork beteko ditu astelehenean 6 urte? Zorionak, **Leire**, etxeko guztien partez, eta bereziki Malenen partez.




• Zorionak, **Lur**, sanblas usainean iritsi zinen eta pasatu da urtebete dagoeneko. Txokomarrubizko mila muxu, denon partez.



• **Malen**, maitia, zorionak. 6 urte handi! Patxo potolo-potolo bat, etxeko guztien partez, printzesa.



• Zorionak, **Eneko eta Ane**, astelehenean zuen urtebetetze eguna izan zelako. Etxeko guztien partez, eta bereziki, aitxitxa, amama, Maialen, Beñat eta Maiteren partez.



Otsailak 10tik 12ra
**mozorro
hezkidetzailleak
egiteko tailerra**
Ludotekan

Inauterietako makillajea
izango dugu otsailaren
14an, zure mozorroari
azken ukuitua emateko.
Etorri izena ematera!



BARREN astekarirako KOMERTZIALA BEHAR DA

ESKAITZEN DA

- Ordezkapen bat egiteko lan kontratua.

ESKATZEN DA

- Euskara maila ona: ahoz eta idatziz.
- Lan taldean lan egiteko gaitasuna.
- Salmentarako eta jendaurrean lan egiteko doaiak.

BALORATUKO DA

- Elgoibar edo ingurukoa izatea.
- Marketing ikasketak izatea.
- Autoa izatea eta ordutegi malgua.

Interesatuak bidali curriculumak otsailaren 6rako, barren@elgoibarkoizarra.eus
Informazio gehiagorako: (943 744 112, Ainhoa)

6 barixakua

Erakusketa

18:30 Eskultura

Jose Luis Lasaren kultur erakusketa jarriko dute ikusgai hilaren 21era arte. Kultur Etxean.

7 zapatua

Santa eskea

9:00 Kalez-kale

Etxegiña tadekoak irtengo dira, Bolatokitik.

Santa eskea

8:30 Mendaron

Herriko Enparantzan batuko dira, eta Mendaroko kale eta baserriak pasatuko dituzte kantuan.

8 domeka

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *Por las calles del viejo Madrid* (F. Bonete).
2. *Mecano* (A. Tormo).
3. *Os passaros do Brasil* (Kees Vlak)
4. *El abanico* (A. Javaloyes).
5. *Chess* (Ulvaeus-Andersson).

11 eguztina

Ipuinkontalaria

17:00 Ipuin traketsak

HH5eko haurrentzat, Udal Liburutegian.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
6 Oruesagasti 7 Barrenetxea 8 Barrenetxea 9 Ibañez 10 Garitaonandia 11 Etxeberria 12 Fernandez 13 Yudego	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA

(HERRIKO ANTZOKIAN)

«Jostunak»
(Dokumentala)
6, barixakua: 20:30

«Corazones de acero»
7, zapatua: 19:00 / 22:15
(VOS)
8, domeka: 19:00
9, astelehena: 21:30

«Noche en el museo:
el secreto del faraón»
8, domeka: 16:30

«Magical girl»
(Ongarri zinekluba)
12, eguztina: 21:30



I. URTEURRENA

2014ko otsailaren 8an hil zen
82 urte zituela

BENITO MARIN PEREZ

eta

PAQUITA OLIVAS MARIN



ESKERTZA

2015eko otsailaren 2an hil zen
86 urte zituela

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak

I. URTEURRENA



IDOIA LAKA LIZASO

*Izan zarenagatik,
erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

Zure familia

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 7an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA



IDOIA LAKA LIZASO

*Behar dugunetan ezin gara babestu zure besoetan,
baina badakigu hor zaudela ezkutatuta gure bihotzetan.
Zure irribarrea gogoan ezin ahaztu eta ezin ikutu.
Zergatik ez zauden gurekin, ezin dugu jasan, ezin dugu ulertu.*

Maite zaitugu

Azkoiti-Elgoibarko lagunak

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 7an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari.



II. URTEURRENA



JULIO URBIOLA ELOSEGI

2013ko otsailaren 10ean hil zen.

*"Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan"*




I. URTEURRENA



JOSE GURRUTXAGA LIZARRALDE

2014ko otsailaren 6an hil zen, 95 urte zituela.

*Zure falta sumatzen dugu Garagartza aldian.
Jaso ezazu gure maitasuna, orain zauden tokian.*



ikastolan

denok gara

gu



ikastolenelkartea



elgoibar ikastola
www.elgoibarikastola.eus

Herritik sortu eta herriarentzat
Kooperatiba
Euskara eta euskal kultura
Ikasle euskaldun, eleanitz,
buru-askeak
Profesional trebatuak
Guraso inplikatuak.
Eredu propioa,



Horregatik, zu, hura,
zuek, haiek, gu, ni...
ikastolan, denok gara GU



aurre-matrikulazioa
otsailaren 2tik 13ra



www.elgoibarikastola.eus



ikastola

IKT-informazioa eta
AZARREKOTIA, denok batera